



**Nafarroako Gobernua**  
Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

# Zuzenketarako koadernoak

2  
0  
0  
8  
/  
0  
9

**EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA**

**LEHEN HEZKUNTZAKO 4.MAILA**

**IRAKURTZEKO GAITASUNA**

# Zuzenketa eta erregistro jarraibideak

Liburuxka honetan ezarritako zuzenketa irizpideak 2008ko maiatzean eginiko proba pilotuaren arabera zehaztu dira, eta zehatzak eta argiak izan nahi dute, zuzentzaile guztiak puntuazio irizpide berberak erabil ditzaten; hau da, zuzentzailea normahi izanda ere, proba bati ematen zaion puntuazioa berbera izan beharko luke.

Ondoko urratsei jarraituko zaie:

## 1. Zuzenketa.

Alternatiba bat hautatzea eskatzen duten galderak (A, B, C edo D).



Zuzentzaileak ez du deus berezirik egin behar.

Gainontzeko galderak



Zuzentzaileak, zuzenketa egin eta galdera bakoitzaren ondoan idatziko du dagokion kodea (0, 1, 2...).

## 2. Kodeak aplikazio informatikoan sartzea. Kodeak (A, B, C, D, 0, 1, 2...) aplikazio informatikoan sartuko dira.

Erantzunik gabeko galderetan ez da koderik sartu behar (utzi zuriz).

Alternatiba bat hautatzea eskatzen den galderetan, ikasleak aukeraren bat baino gehiago adierazi dituzenean (eta ezabatu gabe bat baino gehiago utzi dituzenean) ez da koderik sartu behar.

Ikasleek eginiko probak ikastetxean gordeko dira eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren esku egonen dira. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egiaztatze azterketak egin ahal izanen ditu, zuzenketa irizpideen baliotasuna egiaztatzeko eta irizpide horiei modu homogeen jarraitu zaien ikusteko.

# Buztantxoren larrialdiak

Buztantxo oso txakur txikia zen, txurigorrixa. Ile luze samarra zeukan. Oso alai eta bitxia zen, katagorrien modukoa. Baina ez zeukan katagorriena bezalako buztanik, ez horixe!



Buztantxo familia batek errepide bazterrean aurkitu zuen ilunabar batean.

Orduan txakurkume txikia zen, potokoa eta borobila. Bere hankak oso lodiak eta motzak ziren eta buztanik batere ez zeukan. Ez jaioberritan gizon bihozgaberen batek moztu ziolako, ez horixe. Buztantxo buztanik gabe jaio zen.



Horregatik, ilunabar hartan auto bat errepidean gelditu eta bertatik bederatzi urteko neska polita atera zenean, txakurkumea besoetan pozik hartu eta, berriro autoan sartzean, gurasoei esan zien:

- *Begira, begira zein polita den! Buztanik ez dauka eta oso txikia da. "Buztantxo" izango da bere izena!*
- *Baina ez al duzu ikusten, Edurne -esan zion aitak neskatoari-, oso hanka lodiak dauzkala? Hanka lodiko txakurkumeak normalean oso handiak egiten dira. Laster zu baino handiagoa izango da.*
- *Berdin dio, aitatxo! Niretzat nahi dut eta Buztantxo deituko diogu. Ezta, ama?*

Edurneren amak aitari ahapeka zer edo zer esan zion eta, ondoren, neskatoari:

- *Bai, laztana. Zuretzat har dezakezu. Baina ez ahaztu gero, zeuk garbitu, egunero atera eta jaten eman beharko diozula.*
- *Ez dut ahaztuko! Eskerrik asko!*

Buztantxok, Edurne eta bere gurasoak esaten ari zirena ulertu balu bezala, bi zaunka txiki egin eta kokotsa milikatu zion neskatoari.

Buztanik ez zeukanez, ezin zuen astindu bere barrengo poza adierazteko, baina ahaleginean ipurtalde osoa mugitzen zitzaion bixi-bixi.

Etxera iritsi zirenean berandu zen eta ilun zegoen. Buztantzok etxe hartako bere lehen gaua ganbaran eman zuen, Edurnek maitekiro prestatu zion zapi zaharrez egindako ohe goxoan. Hala ere, txakurkumeak ez zuen lorik egin. Neskatoak emandako janaria eta esnea jan eta edan ondoren, aldi batez negar egin zuen bakarrik zegoelako. Baina etxeoak lo zeuden eta ezin zioten kasurik egin. Halaxe, tarteka esna eta tarteka lo, gaua igaro zen eta goizean goiz Edurne beragana joan zen.

Hura zen poza Buztantzorena!

- *Buztantxo! –esan zion Edurnek ganbarako atea ireki ondoren-. Zatoz nirekin! Etxea erakutsiko dizut!*

Txakurkumea pozarren joan zen. Edurnerekin, jakina. Neskatoak barre egin zuen gustura txakurtzoxa ozta-ozta jaitsi zitekeelako eskaileretan behera: bere hanka motz eta lodikoteak ez ziren ongi moldatzen eskaileretan eta Buztantxo estu eta larri zebilen.

Sukaldean Edurnek esne eta janari gehiago eman zion, baina Buztantzok ez zuen askorik jan, hain zebilen gustura korrika eta saltoka neskatoaren inguruan.

Era hartantxe, jauzi eta jolas, bi laguntxo berriak lorategira atera ziren. Eguzkia hodei artean zebilen ezkutaketan, pozak zorutzen, Edurne eta Buztantxo bezalaxe. Lorategia benetan ederra zen, baina etxea kanpotik ikusita... oso zaharra eta zatarra iruditu zitzaion Buztantzori. Berak, egia esan, ez zekien gauza handirik etxeei buruz, baina Edurne eta bere gurasoena oso zaharra zela pentsatu zuen.



Hala ere, Buztantzori laster ahaztu zitzaion hura, jakina, Edurne hantxe baitzebilen poz-pozik lorategiko belarretan, bera egunkari zahar bildu batekin xaxatzen. Zer uste zuen, bada, Edurnek? Buztantzok ez ziola egunkari zaharrari kosk egingo? Azkar asko gainera! Baita Edurneren amak zabaldutako arropen ere.

Buztantzoren larrialdiak; Bat, 1.kapitulua, 5.-10. or. Aitor Arana

1. Deskribatu bizpahiru lerrotan Buztantxo. Azaldu nolakoa den.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Bi ezaugarri adierazi behar dira, gutxienez: oso txikia dela eta buztanik ez duela.

2. Non zegoen Buztantxo istorioaren hasieran?

- A Txakurtegi batean.
- B Klean.
- C Edurneren lagun batzuen etxean
- D Ez dakigu.

3. Zergatik zituen Buztantxok hankak lodiak?

- A Asko jaten zuelako eta lodi zegoelako.
- B Zahartzen denean txakurkumea handituko delako.
- C Ordurako txakur handia eta indartsua zelako.
- D Ez zelako txakur bat, hartzatxo bat baizik.

4. Zer gertatu zitzaion Buztantxori?

- A Sortu zenean buztana moztu zioten.
- B Bere lehen jabeak buztana zertxobait moztu zion.
- C Buztanik gabe sortu zen.
- D Gizon bihozgabe batek txikitan zaindu zuen.

5. Esan antzekotasun bat eta desberdintasun bat Buztantxoren eta katagorri baten artean:

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Antzekotasuna: biak alaiak dira edo Ile kolore txurigorriak dute. Desberdintasuna: Buztantxok ez du buztanik, eta katagorriak bai.

6. Edurnek txakurtxo lehena aldiz jaso zuenean, zerk egin zion zirrararik handiena?

- A Txikia eta buztanik gabea izateak.
- B Buztantxo deitzeak.
- C Zikin eta gose egoteak.
- D Jaberik gabeko txakur bat izateak.

7. Zerk kezkatzen zuen Edurneren aita?

- A Handitzen zenean txakurkumea asko handituko zela.
- B Etxea zikinduko zuela eta txertatu beharko zela.
- C Bere emazteari ez zitzaizkiola txakurrak gustatzen.
- D Edurne gazteegia zela txakurtxo baten kargu egiteko.

8. Nork erabaki zuen Edurne Buztantxorekin geratu zitekeela?

- A Bere aitak
- B Txakurraren jabeak
- C Aita, ama eta Edurneren artean erabaki zuten.
- D Bere amak, aitaren adostasunarekin.

9. Bildu zutenean Buztantxo pozik zegoen. Esan egin zituen hiru gauza:

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	3 gauzak adierazi behar dira: bi zaunka txiki egin, kokotsa milikatu neskatoari, eta ipurtaldea mugitu.

10. Zer ardura hartu behar zituen neskatoak txakurtxoa etxera eramaterakoan?

- A Txakurtxoari kokotsa milikatu eta jaten eman.
- B Txakurtxoaren buztana luzatzen lagundu eta ilea moztu.
- C Txakurrarekin jolastu eta berarekin kalean ibili.
- D Txakurtxoa egunero kalera atera, garbitu eta jaten eman.

11. Non igaro zuen Buztantxok lehen gaua?

- A Ganbaran, denek ahazturik.
- B Edurnek prestatu zion ohetxo batean.
- C Etxeko sukaldean.
- D Lorategian.

12. Nola igaro zuen Buztantxok lehen gaua?

- A Lasai.
- B Kezkati; ihes egin nahi izan zuen.
- C Gau osoa negarrez.
- D Negar egin zuen; baita lo ere.

13. Nola jaitsi zituen Buztantxok eskailerak? Zergatik?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra.
1	1	Zati bati erantzuteagatik: - Ozta-ozta edo estu eta larri jaitsi zituen. - Hankak motzak zituelako.
2	2	Bi zatiak zuzen erantzuteagatik.

14. Jaiki ondoren, zergatik ez zuen ia-ia deus ere jan Buztantxok sukaldean?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra.
1	1	Korrika eta saltoka zebilelako, oso gustura zebilelako, jolasean zebilelako.

15. Zergatik hitz egiten dio amak aitari ahapeka?

- A Gaua zelako eta gauez apal hitz egin behar delako.
- B Ez zuelako nahi aitari esaten ziona Edurnek aditzea.
- C Zakurrak ilusioak ez egiteko.
- D Senarra hurbil dagoelako.



16. Zure ustetan, zein izango da txakur horren etorkizuna etxe horretan?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Asko jolastuko du. Autoek ez dute harrapatuko. Ez du istripurik izango. Buztanik ez du izango. Etxe zahar batean biziko da...
1	1	Zoriontsua; poza handikoa; alaia...Edurnerekin oso zoriontsu biziko dela; ongi biziko da; kalean baino hobeki biziko da. Onargarriztat hartuko dugu ez duela goserik pasako adieraztea ere.

17. Ondoan azaltzen den testuari hainbat ikur falta zaizkio. Jar iezazkiozu.

Hura zen poza Buztantxorena!

— Buztantxo! —esan zion Edurnek ganbarako atea ireki ondoren—. Zatoz nirekin!

Etxea erakutsiko dizut!

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Ikurren bat okerreko tokian jarri gero.
1	1	Ikurrak toki egokietan jartzeagatik: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Harridura ikurrak (4)</li> <li>• Gidoitxoak (3)</li> <li>• Puntuak (1).</li> </ul> Oker bat onartzen da, edota bakarren bat jarri gabe uztea.

18. Lorategian jolasean ari denean, arazoren bat sortuko du Buztantxok?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Gauzak hautsiko ditu...
1	1	Edurneren amak zabaldutako arropen ere kosk egingo diela.

19. Laburtu 5 lerrotan Buztantxoren istorioa. Idatz itzazu ideiarik garrantzitsuenak:

- .....
- .....
- .....
- .....
- .....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Ideia nagusirik ez emateagatik edo bat besterik ez emateagatik.
1	1	Bi ideia nagusi emateagatik.
2	2	Hiru ideia nagusi edo gehiago emateagatik. Hona hemen nagusienak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Buztantxo txakur txikia eta buztanik gabea zen.</li> <li>• Familia batek (edo Edurnek) errepidean aurkitu zuen</li> <li>• Edurnek etxera eraman nahi izan zuen eta gurasoek utzi zioten, baimena eman zioten.</li> <li>• Lehen gaua negarrez eman zuen. Bakarrik sentitu zen.</li> <li>• Edurnerekin jolasean gustura ibiltzen da.</li> <li>• Zoriontsu biziko da.</li> </ul>

20. Zenbakia ipini esaldi hauetan, irakurketan ageri diren momentuaren arabera:

<b>5</b>	Buztantxo jolasean ari da lorategian.
<b>3</b>	Edurenek etxea erakutsi dio.
<b>1</b>	Edurenek eta bere familiak Buztantxo bildu dute.
<b>2</b>	Buztantxo gauzez bakarrik sentitzen da.
<b>4</b>	Buztantxok ia ez du deus ere jaten sukaldean.

<b>Zuzenketarako irizpideak</b>		
<b>Kodea</b>	<b>Puntuazioa</b>	<b>Erantzuna(k)</b>
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Adierazitako hurrenkeran jartzeagatik.

21. Zure ustez, nolakoa da istorio hau?

- A Tristea
- B Ez tristea, ez alaia
- C Alaia
- D Ez dakit

22. Egoera berean egonda, beste txakurren bat adoptatuko luke Edurenek? Zergatik?

.....

.....

<b>Zuzenketarako irizpideak</b>		
<b>Kodea</b>	<b>Puntuazioa</b>	<b>Erantzuna(k)</b>
0	0	Arrazoibiderik gabeko erantzuna. Arrazoibide okerra.
1	1	Arrazoi egoki bat eman behar da, nahiz baiezkoa (txakurrak gustatzen zaizkiolako, bihotz ona duelako, txakurrak izateko etxe egoki batean bizi delako...) nahiz ezezkoa (txakur batekin aski izanen du, gurasoek behar bada ez diote utziko, ezin ditu munduko txakur abandonatu guztiak hartu...).

# Udalekuak euskaraz - 08

## Piraten Udalekuak

Pasai Donibane (7 egun)

### ADINA

Lehen Hezkuntza 1.-3.

### PREZIOA


119 €

### DATAK

1. Ekainaren 27tik uztailaren 3ra
2. Uztailaren 3tik 9ra
3. Uztailaren 9tik 15era
4. Uztailaren 15etik 21era
5. Uztailaren 21etik 27ra
6. Uztailaren 27tik abuztuaren 2ra
7. Abuztuaren 2tik 8ra

### EKITALDIAK

Jolas tailerrak, ludoteka pirata, txangoa txalupaz, hondartza, ibilaldiak, igerilekua...



## Natura Udalekuak

Alkiza (7 egun)

### ADINA

Lehen Hezkuntza 4.-6.

### PREZIOA


119 €

### DATAK

1. Ekainaren 27tik uztailaren 3ra
2. Uztailaren 3tik 9ra
3. Uztailaren 9tik 15era
4. Uztailaren 15etik 21era
5. Uztailaren 21etik 27ra
6. Uztailaren 27tik abuztuaren 2ra
7. Abuztuaren 2tik 8ra
8. Abuztuaren 8tik 14ra

### EKITALDIAK

Jolasak, herri kirola, mendi ibilaldiak, hondartza, piragua Txingudiko Badian...



## Aurre-inskripzioa:

Apirilak 14, 15 eta 16

Euskara Zerbitzua

Elbarren, 1

31880 LEITZA

Telefona: 948 510 814

## Oharrak:

- Plaza kopuru mugatua.
- Zozketa bidez erabakiko da.
- Lehentasunaren arabera, hiru txanda arte aukeratu daitezke.
- Izena taldeka eman daiteke, gehienez ere lau.
- Aurre-inskripzioa telefonoz egin daiteke.

## Matrikula:

Behin plaza egokituta ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Fitxa beteta eta sinatuta
  - Osasun txartelaren fotokopia
  - Karnet neurriko argazkia
  - Banketxeko ziurtagiria:
- Euskadiko kutxa – 3035 0118 89 1180008510



## Antolatzaileak:

Aezkoako Batzarre Nagusia.

Bortziriak, Iparralde, Malerreka, Sakana, Irantzu eta Uharte-Esteribarko Mankomunitateak.

Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatua.

Antsoain, Aranguren, Atarrabia, Auritz-Erroibar-Luzaide-Orreaga, Barañain, Baztan, Berriobeiti, Berriozar, Burlata, Erronkari-Zaraitzu, Gares, Lizarra, Orkoien-Oltzako Zendea-Etxauri-Bidaurreta eta Tafallako Udalak.

## Laguntzailea:



Nafarroako  
Gobernua

Nafarroako Gazteriaren  
Institutua

23. Zein dira udalekurik luzeenak?

- A Piraten udalekuak, 12 egunekoak.
- B Natura udalekuak, 10 egunekoak.
- C Udaleku guztiak iraupen berekoak dira.
- D Denak 10 egunekoak dira.

24. Aurre-inskripzioa egiteko, zer zenbakira deitu daiteke?

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra.
1	1	948510814 zenbakia jarri behar da (azken 6ak behintzat).

25. Zenbat egun ditugu aurre-inskripzioa egiteko?

- A Astebete
- B 10 egun
- C 5 egun
- D 3 egun

26. Zer gertatuko da aurretik izena eman dutenak parte hartzeko postuak baino gehiago badira?

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra.
1	1	Zozketa bidez erabakiko da.

27. Horrelako udalekuren batean parte hartu nahi izanez gero, non eman behar da izena?

- A Pasai Donibanen, Piraten udalekura joan nahi izanez gero.
- B Alkizan, Natura udalekura joan nahi izanez gero.
- C Euskara Zerbitzuan.
- D *Euskadiko Kutxa* banketxean.


28. Antolatu dituzten udaleku hauek, zein helburu edota ezaugarri garrantzitsu dute?

- A Begi estali batekin pasa behar direla egunak.
- B Udalekuak, nahiz bata nahiz bestea, euskaraz direla.
- C Bainujantzia eraman behar dela, nahiz batera nahiz bestera joan.
- D Udalekuak diren bitartean ez dela klaserik izango.

29. Udaleku hauetan, eman al daiteke izena taldeka?

- A Bai, gehienez ere lauk.
- B Bai, eta nahi beste lagun.
- C Ez, izena banaka eman behar da.
- D Ez du adierazten.

30. Lotu udaleku bakoitzari dagozkion ezaugarriak.



<b>Zuzenketarako irizpideak</b>		
<b>Kodea</b>	<b>Puntuazioa</b>	<b>Erantzuna(k)</b>
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Falta diren 4 geziak behar bezala luzatu behar dira.

31. Andoni Lehen Hezkuntzako 3. mailan dagoen mutiko bat da. Joan al daiteke herri kirolak egiten diren udalekura? Zergatik?

.....

.....

.....

<b>Zuzenketarako irizpideak</b>		
<b>Kodea</b>	<b>Puntuazioa</b>	<b>Erantzuna(k)</b>
0	0	Erantzun okerra edo ez osoa.
1	1	Andoni ezin da joan herri kirolak egiten diren udalekura, jarduera hori NATURA udalekuan egiten delako eta udaleku hori 4. eta 5. mailakoentzat delako.  (Aski da jarduera hori 4. eta 5. mailakoek bakarrik egin dezaketela adieraztearekin).

32. Ekainean, oporrak hartu ondoren, mutiko batek iragarkia ikusi eta izena ematea pentsatu du piraten udalekuan. Zer gertatuko da aurre-inskripzioa egiterakoan?

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra.
1	1	Epez kanpo dabil. Epez kanpo dabilela adieraziko diote.

33. Non ordaindu behar da dirua?

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna(k)
0	0	Erantzun okerra.
1	1	Banketxean, nahiz banketxeko zenbakia adierazi edo ez adierazi.

34. Nor dira antolatzaile nagusiak?

- A Leitzako ikastola.
- B Alkizako Udala.
- C Ikasleen gurasoak.
- D Hainbat herritako udalak